



BURUJABETZA SOZIALA ERAIKI

EUSKAL ERREPUBLIKA AKTIBATU



Aberri eguna: gure konpromiso politiko eta soziala berresteko eguna

Aberri Eguna gure izaera nazionala indartzeko eta euskal herritarron konpromiso politiko eta soziala berresteko eguna da. ELAk ere egun honetan burujabetzarekiko eta Euskal Errepublikarekiko konpromisoa berresten du. Gure azken kongresuan Euskal Errepublika sozialista, feminista, antirrazista, ekologista eta euskalduna jarri genuen jomugan, eta argi utzi genuen burujabetza politikoa eta soziala bereizi ezinak direla: ez dago askapen nazionalik justizia sozialik gabe, eta ez dago justizia sozialik erabakiak hartzeko tresna eta botere politiko propioa izan gabe.

Inperialismoaren eta gerraren aurrean: herrien burujabetza

Aurtengo Aberri Eguna, ordea, testuinguru bereziki nahasian ospatzen dugu. Mundu mailako ordena geopolitikoan eta ekonomikoan gertatzen ari diren aldaketek agerian uzten dute ziklo historiko berri batean sartu garela. AEBek lotsarik gabe erakusten dute imperialismoaren aurpegiak ankerrena: gerra ekintzak, mehatxu militarrek eta herrialde subiranoen aurkako eraso eta presioak ugaritu dira. Aldi berean, autoritarismoa eta eskuin muturraren gorakada hedatzen ari dira, feminismoak, antirrazismoak eta mugimendu ekologistek hamarkadetan agerian utzitako zapalkuntzen aurkako borrokak eta lortutako aurrerapenak kolokan jarritz, baita demokrazia bera ere; eta, horrekin batera, nazioarteko zuzenbidearen zein giza eskubideen inguruko oinarritzko adostasunak hankaz gora jarri dira.

Kapitalismoaren hazkunde ereduak gero eta jasanezinagoa da, planetaren muga fisikoak agerian geratzen ari diren honetan. Testuinguru horretan, botere ekonomikoek beren hegemonia mantentzeko estrategiak indartzen dituzte, militarizazioa eta kontrol soziala barne.

ELAk Europar Batasunak erakusten duen noraeza politikoaren eta AEBekiko mendekotasunaren aurrean kezka eta salaketa adierazi nahi du. AEBen interes estrategikoekin lerrokatuta, Europako herrialde eta herritarren interesen aurkako erabakiak hartzen ari da. Bereziki larria da Israelekin dituen harreman politiko, ekonomiko eta militarrei eustea, nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubideak etengabe urratzen diren testuinguruan.

Hamarkadetako politika neoliberalak burujabetzarako estrategikoak diren esparruak — elikadura, energia, zaintza, teknologia edo finantzak — desmantelatu edo beste herrialdeen menpe utzi dituzte. Egungo krisi sistemikoak, ordea, agerian uzten du bizitzarako funtsezko sektoreen gaineko kontrolak eta burujabetzak duten garrantzia.

Burujabetza sozialaren bidetik Euskal Errepublika aktibatu

Egungo politika instituzionalek, kapital handiekiko menpekotasunak eta burujabetza faltak, euskal langilegoaren lan eta bizi baldintzen okertzea ekarri dute.

Langileok aberastasuna sortzen jarraitzen dugu, baina gero eta modu bidegabeagoan banatzen da. Kapitalaren interesak nagusitzen dira, eta gobernuek politika neoliberalak kudeatzera mugatzen dira. Bere burua aurrerakoitzat dutenek ere ez dituzte politika neoliberalen oinarriak behar beste auzitan jartzen, ezta benetako alternatibarik proposatzen ere.

Egoera honek, ordea, ez du neutraltasunik ezta epelkeriarik ere onartzen. Ez da nahikoa egoera kudeatzen saiatzea edo erreakzio hutsean aritzea. Egoera salatzeaz gain, norabidea aldatu eta alternatiba sozial eta politiko sendoa eraiki behar da. Horretarako, gehiengo sozialaren

politizazioa, inplikazioa eta aktibazioa ezinbestekoak dira. Eskuineko olatu erreakzionarioari aurre egiteko modurik eraginkorrena ez da defentsa hutsa; alternatiba sozial eta demokratikoa eraikitzea baizik.

Testuinguru horretan kokatzen da egin berri dugun greba orokorra, 1.500 euroko gutxieneko soldata Euskal Herrian erabakitzea eztabaida politiko eta sozialean erdigunean jarri duena. Greba ez da soilik neurri sozial bat —genero zapalkuntzari, jatorriaren arabera diskriminazioari eta gazteen zein langile askoren prekaritateari aurre egiteko—; burujabetza ariketa ere bada, konfrontazio, politizazio eta polarizazio ariketa, alegia. Izan ere, lan harremanen egitura, oinarritzko legeria, gutxieneko soldata edo babes sozialerako tresnak Madrilen erabakitzen badira, autogobernua edukiz hustuta geratzen da. Burujabetza materialik gabe —lan harremanen marko propioa, babes sozial propioa, zerbitzu publikoak gure beharren arabera antolatze gaitasuna edo sektore estrategikoen kontrola— ez dago burujabetza politikorik.

Grebaren arrakastak eta eragin duen jendartearen aktibazio eta mobilizazioak interpelazio zuzena egin diete euskal alderdi politikoei eta instituzioei, egungo autogobernuaren gabeziak agerian utziz eta euskal herritarren bizi baldintzak hobetzeko zein burujabetzan aurrera egiteko beharrezko tresnak borrokatzera deituz.

Zapalkuntza agerian, alde bikotasunaren fikzioa ere bai

Hamarkadetako birzentralizazio prozesuak agerian utzi du Espainiako Estatuaren izaera. Eusko Jaurlaritzak berak salatu duen autogobernuaren “higadura isila” horren isla da. Estatuak, lege organikoen eta oinarritzko legeen bidez, duela lau hamarkada onartutako eskuduntzak ez betetzeaz gain, indarrean zeuden eskumenak ere mugatu edo epaitegi espainiarren bidez desitxuratu ditu. Euskararen aurkako oldarraldi politiko, sindikal eta judiziala horren guztiaren adierazle garbia da. Autogobernuaren edukia sistematikoki hustu da. Nafarroako Foru Hobekuntza eta Gernikako Estatutua hilda daude; Espainiako Estatuak akabatu ditu.

Diagnostikoa hori bada, ezin da berriro alde bikotasunaren edo elkarrizketa hutsaren hipotesira itzuli. Horregatik diogu estatus politiko berriaren eztabaida ezin dela elite politikoen arteko negoziazio itxietara mugatu. Ezta Nafarroako Parlamentuan eratutako batzordean gertatzen den moduan benetako aldaketa politikorik planteatzen ez duen eztabaida instituzional huts batera ere.

Burujabetzan benetako aurrerapausoak eman nahi badira, eta herritarren ongizatea bermatuko duen eduki soziala erdigunean jarriko bada, ezinbestekoa da gizarte antolatuaren eta jendartearen parte hartzea. Estrategia propioa behar dugu: jendarte aktibatu eta estatuarekin konfrontazio demokratikoa gauzatu. Nazio auzian, impasetik aktibaziora igaro behar dugu.

Ipar Euskal Herrian, abertzaleen indarra txikiagoa eta tresna instituzionalak mugatuagoak izan arren, azken urteetako esperientziek irakasgai baliotsuak eskaintzen dituzte. Frantziako Estatuaren ordezkarien azken erreakzioek —prefetaren euskararen eta laborantza ereduaren aurkako jarrerak— erakusten dute bide hori eragin politikoa sortzen ari dela. Batera plataformaren dinamika berria testuinguru horretan ulertu behar da.

Estatuen baimenaren zain egon gabe, eta beharrezkoa denean konfrontazioa baliatuz, gizarte antolatuaren ekimenetik sortutako alternatibek eta burujabetza ariketa praktikoek erakusten digute jendartearen aktibazioak baduela gaitasuna alternatiba konkreituak sortu eta gizarte pixkanaka eraldatzeko. Horren adibide dira Euskal Herriko Laborantza Ganbara, Bizi!, Euskoa, Alda, Goiener, Enargia, I-Ener, Izarkom, Koop57, Fiare, Biziola, Olatukoop eta Euskal Herri osoan burujabetza eta alternatibak eraikitzen dituzten beste hainbat proiektu.

Azken hamarkadetako esperientziek erakutsi digute burujabetzarako ez dagoela bide errazik, ezta formula magikorik ere. Garrantzitsua izan arren, estrategia independentistak ezin du estatus juridiko berri baten negoziazio hutsean oinarritu. Burujabetza politikoa eta soziala bereizi ezinak dira: gehiengo sozialak eta indar-harreman hobea behar ditugu, aurrean gure herria eta hizkuntza mugatzen dituzten bi estatu boteretsu baititugu.

Horren erakusgarri da euskararen aurkako alderdi politiko, sindikatu eta epaile euskarafoboaren oldarraldia, euskara ofiziala den Euskal Herriko eremuan bertan. Euskaraz lan egin eta bizitzeko eskubidea ez dago bermatuta, ezta administrazio publikoetan zerbitzua euskaraz jasotzekoa ere. Egungo marko legal eta konstituzionalek euskaldunon hizkuntza eskubideak sistematikoki urratzen dituzte.

Hori guztia kontuan izanda ELAk burujabetza politiko eta sozialean aurrera egiteko lau gako estrategiko nagusi proposatzen ditu:

- 1.** Lan eta bizi baldintzak hobetzea da burujabetza irabazteko biderik sendoena. “Hemen lan egin, hemen erabaki” leloak laburbiltzen du logika hori: negoziazio kolektiboa hemen kokatzea, euskal hitzarmenei lehentasuna ematea, herritarron funtsezko beharrak asetuko dituzten zerbitzu publikoak hemen erabakitzea edo gutxieneko soldata zein babes soziala Euskal Herrian erabakitzea. Hemen erabakitzeak Euskal Herria borroka lurralde eta bizi baldintzak hobetzen dituen subjektu politiko bihurtzen du.
- 2.** Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraikitzen jarraitzea da burujabetza praktikoaren adierazpen argiena. Lan mundua eta babes sozialeko egitura Euskal Herrian erabakitzea funtsezkoa da gure jendartearen ongizatea bermatzeko.
- 3.** Euskaraz lan eta bizitzeko eskubidea unibertsal bihurtzea ezinbestekoa da. Euskara kohesio sozialerako, berdintasunerako eta burujabetzarako ardatza da, eta estrategia juridiko, politiko eta sozial sendoa behar du. Garaia da oldarraldi politiko, sindikal eta judizialari ausardia politikoz erantzuteko.
- 4.** Estatus berriaren eztabaida edukiz bete behar da. Lan legediaren eskumen osoa, babes sozialaren gaineko kontrola, erabateko burujabetza fiskala, nazio aitortza, erabakitze eskubidea eta euskararen benetako ofizialtasuna dira gutxieneko oinarriak. Baina helburu horiek ez dira negoziazio teknikoaren bidez lortuko; mobilizazioaren eta indar sozialen metaketaren ondorio izango dira.

Euskal Errepublika ez da zain egonda edo alderdi politikoen negoziazioaren ondorioz egun batean gauzatuko den aldaketa instituzional hutsa. Etengabe landu, metatu eta eraiki beharreko prozesua da: gehiengo sozialen bizi baldintzak hobetuz, burujabetza desiragarri eta sinesgarri bihurtuz eta indar harremanak pixkanaka eraldatuz gauzatzen dena.

ELAren ustez, hor dago prozesu honen hurrengo fasearen gakoa: zapalkuntzaren kontzientzia zabaltzea, gehiengo sozialak aktibatu eta antolatzea, aliantza zabalak ehuntzea eta estatuarekin konfrontazio demokratikoa garatzea, burujabetza soziala eta politikoa batera irabazteko.

Horregatik, Aberri Eguna konpromiso hori berritzeko aukera da: langile klasearen borrokan, euskararen defentsan eta burujabetza sozial eta politikoa eraikitze bidean.

ELAk konpromiso hori berretsi eta egia bihurtzeko lanean jarraituko du.

Gora Euskal Herria askatuta!